

## IKASKETAK

**Ikasketa batzorde** bat dago eta bertatik presoen ikasketak kudeatzen laguntzen da.

Batzorde honek gutun bat bidali die preso guztiei 2013-14 ikasturterako ikasketa-eskaintza azalduz.

Hauxe da harremanetarako posta elektronikoa:

**ikasketak@gmail.com**

*(Hala ere ezin baduzue kontaktatu korreo elektronikoz, deitu Etxerat elkartera eta bertan jarriko zaituztegu harremanetan ikasketa batzordekoekin)*

## UNIBERTSITATE IKASKETAK

### Espainiako estatuan

Espainiar estatuko espetxeetan dauden presoek 2003 urtetik aurrera ezin dute EHUn ikasi. EHUn ikasteko eskubideen aldeko urtero hainbat gestio egiten ditugun arren, orain arte ez dugu ezer lortu.

UNEDn ikasteko aukera baino ez diete legeztatu, eta urtero baldintzak gogortzen dituzten arren, hauxe da aukera bakarra bai unibertsitaterako sarbide proba zein unibertsitate ikasketak egin ahal izateko.

UNEDk eskaintzen dituen ikasketak egiteko kudeaketa ikasle **presopak berak egin behar ditu espetxetik zuzenean**, presoentzako programa berezia baita. Espainieraz baino ezin dute ikasi. Ikus **1. eranskina**

Ikasketa hauek doan izan beharko lukete, baina une honetan matrikula doan izango da aurreko ikasturtean hartutako kreditu edo ikasgaien %60 gaindituz gero. Horrez gainera, orain, ikasteko materialerako diru laguntza Ministerio de Educación, Cultura y Deporte delakoak ateratzen duen deialdia orokorrean eskatu behar dute ikasle presoek, web orrian agertzen denari jarraituz. Deialdia orokorra denez gero, espetxean bertan galdetu beharko dute zelan kudeatu beka-eskaera.

UNEDk 25 urtetik gorakoentzako sarbidea eskaintzen du, baita 45 urtetik gorakoentzako ere. Ikasketa ertaineko titulurik ez dutenentzat, aukera ona da bai unibertsitate ikasketak hasteko, bai lanbide heziketako goi mailako zikloak egin ahal izateko. Proba hauek eskatzen duten kudeaketa ere espetxetik bertatik egin behar ditu ikasle presoak.

### Gainerako estatuetan

Gainerako estatuetan, Frantzia batez ere, preso daudenek bi aukera dituzte unibertsitate ikasketak egiteko:

## 1. EHUko ikasketak

Aurretik ikasten egon direnek -EHUn zein beste unibertsitatetan- edota unibertsitatean sartzeko baldintzak betetzen dituztenek jarri harremanetan ikasketa batzordekideekin, zein ikasketak egin nahi dituzten adieraziz. Ikus **2. eranskina**.

Beka lortzeko gestioak egiten ari gara, baina oraindik ez dago ezer ziurtatuta.

### 1.1. Unibertsitaterako edota Goi mailako LH ziklorako sarbide proba

Unibertsitatean ikasi nahi, baina selektibitatearik edo antzekorik ez dutenek, 25 edo 45 urtetik gorakoentzako sarbide proba egiteko aukera dute. Sarbide proba horrek unibertsitate ikasketak eta Lanbide Heziketako goi mailako zikloak egiteko balio du.

Erdi mailako titulurik ez dutenentzat aukera interesgarria da proba hau prestatu eta gainditzea, unibertsitatean zein lanbide heziketan ikasteko aukera ematen baitu.

## 2. Frantziako edo beste estatu bateko unibertsitate ikasketak

Espetxe barrutik bideratu behar dira. Gogoan izan frantsesez edo bertako hizkuntzaz ikasi nahi dutenek hizkuntz maila ona izan behar dutela.

Oro har, 25 urtetik gorakoentzako sarbide proba egon ohi da gainerako unibertsitateetan ere, Frantziakoetan batez ere. Informazioa espetxeko ikasketen arduradunari eskatzen zaio. Arazorik balego, ikasketa taldekoekin harremanetan jarri.

## IKASKETA ERTAINAK

### LANBIDE HEZIKETAKO (LHko) ZIKLOAK

Frantziar zein espainiar espetxeetan -gainerakoetan aztertu beharko genuke-, Lanbide Heziketako hainbat ziklo egiteko aukera dago (*ikus 3. eranskina*). Lakuako Hezkuntza Sailaren ardurapean dagoen ikastetxeren batean ikasten dira, EAEko ikastetxeak, beraz.

Lanbide Heziketako Ziklo hauen arlo teorikoa baino ezin dute ikasi, Zikloetan dauden enpresa-praktikak egiteko aukerarik ez dagoelako. **Titulua ez dute lortuko**, beraz; baina, arlo teorikoan gainditutakoak balio ofiziala izango du. Oraindik ezin dira ziklo guzti-guztiak euskaraz egin, baina gehienak bai.

Aurten saiakera berezia egin da industriari lotuago dauden ziklo batzuk eskaini ahal izateko. Ziklo horiek ei dira lan merkatuari begira “aukera” hobea izaten dutenak.

Goi Mailako Zikloak egiteko, gutxienez, batxilerra eginda eduki behar dute; Erdi Mailako Zikloak egiteko, aldiz, DBH titulua.

2013-14 ikasturtean matrikulaldia ikasturtea hasi baino lehenago izango da, uztailan edota irailean. Zikloren bat ikasi nahi izanez gero, beraz, ikasketa taldekoekin jarri harremanetan lehenbailehen.

## **BATXILERRA**

**Batxilerra** egin nahi izanez gero, EAEko ikastetxeren batean egin dezakegu matrikula, edo espetxean bertan, espainiar espetxeetan.

Ikasketa taldekoekin jar zaitezte harremanetan, hemen ikasi nahi izanez gero, eta prozedura zehaztuko dizuegu.

## **BESTELAKO IKASKETAK**

### **EUSKARA GAITASUN AGIRIA (EGA)**

**Momentuz, Frantziako espetxeetan baino ezin da egin.**

Datorren urterako matrikula egin nahi izanez gero, 2014ko otsailean jarri harremanetan ikasketa taldekoekin; baina, orain hasi nahi badute azterketa prestatzen, apunteak eskatu eta bidaliko dizkizuegu.

### **BERE KABUZ IKASI NAHI BADU, ERA EZ ARAUTUAN**

Unibertsitate zein Lanbide Heziketari buruzko gaiak interesatzen bazaizkie, baina ez era arautuan, azterketarik egin nahi ez duelako eta titulua interesatzen ez zaiolako, esaguzue eta saiatuko gara bere interesei erantzun egokia ematen.

## 1. Eranskina

### UNEDko (behin behineko) eskaintza

[www.uned.es](http://www.uned.es)

centros penitenciarios

UNED aukeratzen badute, batzordetik ezin izango dizugu laguntzarik eskaini. Presoek, espetxetik bertatik, egin behar dute kudeaketa: informazioa lortu, matrikula bideratu, ikasketen jarraipena ...

UNEDko (behin behineko) eskaintza	
Graduak	
Derecho Ciencias Jurídicas de las Administraciones Públicas Trabajo Social Geografía e Historia Historia del Arte Lengua y Literatura Españolas Estudios Ingleses: Lengua, Literatura y Cultura Administración y Dirección de Empresas Economía Turismo Ciencia Política y de la Administración	Sociología Psicología Filosofía Antropología Social y Cultura Pedagogía Educación Social Físicas Químicas Matemáticas Ingeniería Informática Ingeniería de las TIC

#### **Matrikula egiteko prozedura (Espainiako espetxeetan)**

Ikasle presoak berak eskatu behar dio ikasketei buruzko informazioa espetxeko arduradunari. Informazioa lortu ondoren, **matrikula espetxetik bideratuko du**. Matrikula egiteko eskatuko dizkioten agiriak aurretik prestatu eta aurkeztu beharko ditu.

Arazorik balego, hona hemen helbideak eta telefonoak. Etxetik ere dei dezakegu, laguntza emateko; baina, hobe gestio guztiak ahoz egin arren idatziz ere egiten badira, geroago balizko erreklamazioak egin ahal izateko.

UNED. "Estudios en centros penitenciarios".

Calle Rio Rosas 44 A 1º  
28003 Madrid

Apartado de correo 50487  
28080 Madrid

UNEDko telefonoak: 91 398 75 37 / 91 398 75 72 / 91 398 75 38  
[centros-penitenciarios@adm.uned.es](mailto:centros-penitenciarios@adm.uned.es)

## 2. Eranskina

### 2013-14 behin behineko eskaintza EHUn

Arabako Campusa	Filologiako Gradua Ingeles Ikasketetako Gradua Euskal Ikasketetako Gradua Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua Historiako Gradua Artearen Historiako Gradua
Bizkaiko Campusa	Negozioen Kudeaketako Gradua Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua Ekonomiako Gradua Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua Finantza eta Aseguruetako Gradua Marketineko Gradua *Soziologiako Gradua *Kazetaritzako Gradua *Zientzia Politikoetako Gradua
Gipuzkoako Campusa	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua Haur Hezkuntzako Gradua Lehenengo Hezkuntzako Gradua Zuzenbideko Gradua Gizarte Hezkuntzako Gradua Gizarte Antropologiako Gradua Filosofiako Gradua Pedagogiako Gradua Psikologiako Gradua Informatika Ingeniaritzako Gradua

#### Oharrak

- Unibertsitate ikasketak egin ahal izateko, selektibitatea gaindituta, Goi Mailako LHko zikloaren titulua edo 25 urtetik gorako sarbidea gaindituta izan behar dute.
- Ikasten egon diren edo ikasi nahi duten karrera ez badago zerrenda horretan, eskaera egin eta ikasketa horietan matrikulatzen saiatuko gara, baina ez da ziur izango.

\* duten ikasketak beti eskaini dira, baina iaz eta aurten dekanook ezetz esan du, fakultatean ez dutela ikasle presorik onartu nahi. Erreklamazioak sartu dira, baina oraindik ez dugu aldeko ebazpenik jaso.

- *Ikasketak aukeratutakoan, badaezpada, idatzi **sei karrera**, bere interesen arabera sailkatuta, hainbat ikasketetan ikasleen kopurua mugatua baitago eta notaren arabera sartzen dituzte ikasleak.*

### 3. Eranskina

#### Lanbide Heziketako Zikloak (2013-14 ikasturtean)

Goi Mailako Zikloak	
<b>Administrazio eta finantzak</b> <b>Instalazio termiko eta fluidodunen mantentzea</b> <i>Garraio eta logistika</i> <i>Lan arriskuen prebentzioa</i> <a href="#">Zuzendaritzari laguntza ematea</a> Nazioarteko merkataritza <a href="#">Energi eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa</a> Sareko informatika sistemen administrazioa ( <i>Ordenagailua ezinbestekoa</i> )	<b>Gizarte Integrazioa</b> Animazio soziokulturala eta turistikoa <b>Ingurugiro kimika</b> Ingurugiro osasuna <b>Haur hezkuntza</b> <a href="#">Fabrikazio mekanikoko diseinua</a> <b>Salmentak eta merkataritza-espazio kudeatzea</b> Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak

Erdi Mailako Zikloak	
<b>Administrazio Kudeaketa</b> <a href="#">Merkataritza jarduerak</a>	<a href="#">Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta</a>

#### **Matrikula egiteko, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:**

- *Erdi Mailako Zikloentzat DBH titulua edo antzekoa eta Goi Mailako Zikloentzat Batxilergo titulua edo baliokidea.*
- *NAren zenbakia eta fotokopia, baita argazki bi ere.*
- *Etxekoan helbidea eta telefonoa matrikula-orrian agertzeko, eta gurekin batera ikasketen ardura izango duen pertsonaren izena, telefonoa eta e-maila.*

- Euskaraz ala espainieraz egin nahi duten zehaztu.

\* Matrikulatik kanpo, bidali, mesedez, ikasketa taldearekin harremanetan egongo den pertsonaren izena, telefonoa eta emaila

## LANBIDE HEZIKETA ZIKLOEI BURUZKO INFORMAZIOA INTERNETen

### 1. LANBIDEZ idatzi bilatzailean

Bertan Lakuako Hezkuntza Saileko orrira joango zara, LANBIDEZ Heziketa

### 2. Hortxe, goiko laukian

[Tituluen zerrenda](#)

[\(ezaugarriak, ikastetxeak, moduluak\)](#)

Sakatu eta bertan topatuko dituzue Lanbide Heziketako “familia” guztiak, hots **LANBIDE ARLOAK**.

Aukeratu interesatzen zaizuna. Kasu honetan (adibide gisa),

### 3. Gizarte eta kultur zerbitzuak

Gizarte eta kultur zerbitzuen arloko heziketa zikloak hauek dira:

...

GOIKO MAILA

[Animazio soziokulturala eta turistikoa](#)

[Gizarte integrazioa](#)

[Haur hezkuntza](#)

[Zeinu mintzairaren interpretazioa](#)

### 4. Eman dezagun, bigarrena interesatzen zaizuela. Bertan hainbat informazio topatuko duzu. **Moduluak** (ikasgaiak) eta funtzioak (?) dira interesatuko zaizkizuenak.

Ikastetxeak **utzi**, guztiak ez baitute ikasle presorik onartzen; zein ikastetxetan ikas dezakeen guk esango dizuegu geroago.

### 5. Kanean bi urtetan egiten dira zikloak; baina, batez beste, 3-4 ikasturtetan egiten ari dira barruan; ikasketa gogo eta baldintzen arabera, beti ere.

Arazorik izanez gero, idatzi ([ikasketak@gmail.com](mailto:ikasketak@gmail.com)) eta guk bidaliko dizugu informazioa. Baina oso urrats errazak dira eta behar duzun guztia bertan topatuko duzulakoan gaude.

## ESTUDIOS

Hay una comisión de estudios, que ayuda a tramitar los estudios de la personas presas.

Se ha mandado ya una carta a todas las personas presas, Explicando la oferta de estudios para el curso 2013-14.

Para contactar con la comisión, el correo electrónico es:  
**ikasketak@gmail.com**

*(Si os es imposible contactar por correo electrónico, podéis llamar a Etxerat desde donde se os pondrá en contacto con las personas responsables de la comisión.)*

## ESTUDIOS UNIVERSITARIOS

### Posibilidad de estudios universitarios en el estado español

Desde el año 2003, a las personas presas en cárceles del estado español el gobierno de Madrid no se les permite estudiar en la UPV. Aunque desde entonces continuemos haciendo gestiones para que puedan estudiar en la UPV, aún no lo hemos conseguido.

Así, aunque las condiciones para estudiar en la UNED son cada vez más duras, es la única posibilidad, tanto para hacer la prueba de acceso a la universidad como para comenzar a estudiar una carrera.

Para estudiar en la UNED es **la persona presa quien deberá realizar todo el trámite desde prisión**, ya que este programa es específico para personas presas. En la UNED las carreras universitarias solo se pueden cursar en español. Ver **anexo 1**

Estos estudios ya no son totalmente gratuitos, puesto que la UNED oferta gratuidad de matrícula, siempre que se apruebe el 60% de los créditos o asignaturas cursadas. No obstante, respecto del material de estudio, en su página web remiten a que se solicite la beca para “material de estudios” en el “*Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, de conformidad con las bases reguladoras de la convocatoria general publicada por dicho Departamento ministerial*”. Al ser una normativa general, tendrá que preguntar cómo puede gestionar la petición de beca desde la cárcel.

La UNED oferta también la preparación para las **pruebas de acceso**, tanto a personas mayores de 25 años como a las mayores de 45. Estas pruebas son interesantes para las personas que no tienen título de grado medio, pues permiten acceder a la universidad y a Ciclos de FP de grado superior. Estas gestiones se hacen también desde la cárcel.

## **Posibilidad de estudios universitarios en otros países**

Las personas presas en otros países, sobre todo en el estado francés, tienen dos posibilidades de realizar estudios universitarios:

### **1. Estudios en la UPV**

Las personas presas que ya estaban cursando estudios universitarios -en la UPV o en otras universidades- o quienes cumplen las condiciones de acceso y quieren estudiar en la UPV, pueden ponerse en contacto con la comisión de estudios, indicando qué estudios quieren realizar. Ver **anexo 2**.

Estamos realizando las gestiones para conseguir que estos estudios tengan beca, pero todavía no hay nada seguro. Ya os informaremos.

#### **1.1. Prueba de acceso para mayores, a la universidad y a Ciclos de FP**

Las personas que quieren cursar estudios universitarios, pero no tienen selectividad o título similar, pueden realizar la prueba para mayores de 25 ó 45 años. Esta prueba de acceso a la universidad, posibilita también el acceso a Ciclos de FP de grado superior.

Esta prueba es interesante para las personas que no tienen título de grado medio, ya que así pueden acceder a los dos niveles de estudios: universitarios y de FP.

### **2. Estudios en universidades francesas o de otros países**

Las gestiones para cursar estudios han de gestionarse desde la cárcel. Indicaros que se necesita saber muy bien francés o el idioma del país.

En casi todas las universidades ofertan pruebas para mayores, también en las francesas. La información se pide a la persona encargada de estudios en la cárcel. No obstante, si hubiera algún problema, pueden ponerse en contacto con alguien del grupo de estudios.

## **ESTUDIOS DE ENSEÑANZAS MEDIAS**

### **CICLOS DE FORMACION PROFESIONAL**

Hay opción de estudiar distintos ciclos de formación profesional, tanto estando en el estado español como en el estado francés, en otros países habría que gestionarlo. (Ver **anexo 3**). Se cursan en centros de la CAV, bajo la supervisión del Departamento de Educación de Lakua.

Las personas presas tan solo podrán cursar las asignaturas teóricas. Hoy por hoy no pueden realizar las prácticas en empresas, por lo que **no**

**obtendrán el título.** De todos modos las materias teóricas aprobadas tendrán valor oficial. No todos los Ciclos se pueden realizar en euskara, pero sí la mayoría.

Para el próximo curso se ha intentado ampliar la oferta de ciclos de corte más “industrial”, que parece ser tienen más salida en el mercado de trabajo.

Para realizar Ciclos superiores se necesita tener superado por lo menos el Bachiller, y para realizar los Ciclos Medios se necesita por lo menos el título de ESO.

Para el curso 2013-14 la mayoría de las matrículas se realizarán antes de comenzar el curso, en julio y/o septiembre. Así, quienes quieran apuntarse, que se pongan en contacto cuanto antes con alguien del grupo de estudios.

## **BACHILLER**

Quienes quieran hacer el **Bachiller**, pueden estudiar en centros de la CAV, o gestionarlo desde la cárcel, si están en cárceles españolas.

Para estudiar en un centro de aquí contactad con el grupo de estudios y os indicaremos el procedimiento a seguir.

## **O T R A S O P C I O N E S**

### **EUSKARA GAITASUN AGIRIA (EGA)**

**De momento, sólo pueden presentarse quienes están en cárceles francesas.**

Quienes tengáis interés en matricularos, poneros en contacto con el grupo de estudios en febrero del 2014. De todas formas, si quieren ir preparando el examen, nos lo indicáis para que os pasemos los apuntes cuanto antes.

### **PARA ESTUDIAR POR SU CUENTA, DE FORMA NO REGLADA**

Si a alguien le interesa estudiar temas relacionados con estudios universitarios o de formación profesional, pero no de forma reglada, porque no quiere hacer exámenes o no le interesa el título, no lo indicáis e intentaremos responder a sus intereses. **Anexo 1**

## **O f e r t a ( p r o v i s i o n a l ) d e e s t u d i o s e n l a U N E D**

[www.uned.es](http://www.uned.es)

centros penitenciarios

En los estudios que oferta la UNED, no podemos hacer seguimiento. Todas las gestiones han de hacerse desde la cárcel, al ser éste un programa especial para personas presas.

<b>ESTUDIOS EN LA UNED</b>	
Grados (oferta provisional de cursos anteriores)	
Derecho Ciencias Jurídicas de las Administraciones Públicas Trabajo Social Geografía e Historia Historia del Arte Lengua y Literatura Españolas Estudios Ingleses: Lengua, Literatura y Cultura Administración y Dirección de Empresas Economía Turismo Ciencia Política y de la Administración	Sociología Psicología Filosofía Antropología Social y Cultura Pedagogía Educación Social Físicas Químicas Matemáticas Ingeniería Informática Ingeniería de las TIC

### **Procedimiento de matrícula. En cárceles españolas**

La alumna o alumno tiene que pedir información a la persona encargada en la cárcel. Una vez conseguida la información, se hace **la matrícula desde la cárcel**. Tendrá que preparar y presentar documentación sobre la titulación necesaria para acceder a la universidad.

Si hubiera algún problema para realizar las gestiones desde la cárcel, conviene escribir directamente a la UNED, mencionando “Estudios en centros penitenciarios”.

Calle Rio Rosas 44 A 1º  
28003 Madrid

Apartado de correo 50487  
28080 Madrid

También se puede llamar desde casa explicando la situación y/o pidiendo información. Pero conviene realizar todas las gestiones por escrito, para que quede constancia.

Teléfonos UNED: 91 398 75 37 / 91 398 75 72 / 91 398 75 38  
[centros-penitenciarios@adm.uned.es](mailto:centros-penitenciarios@adm.uned.es)

## Anexo 2

### 2013-14 propuesta (provisional) de estudios en la UPV

Campus de Araba	Grado en Filología Grado en Estudios Ingleses Grado en Estudios Vascos Grado en Geografía y Ordenación del Territorio Grado en Historia Grado en Historia del Arte
Campus de Bizkaia	Grado en Gestión de Negocios Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos Grado en Economía Grado en Fiscalidad y Administración Pública Grado en Finanzas y Seguros Grado en Marketing * Grado en Sociología * Grado en Periodismo * Grado en Ciencias Políticas
Campus de Gipuzkoa	Grado en Administración y Dirección de Empresas Grado en Educación Infantil Grado en Educación Primaria Grado en Derecho Grado en Educación Social Grado en Antropología Social Grado en Filosofía Grado en Pedagogía Grado en Psicología Grado en Ingeniería Informática

### Notas

- *Para iniciar estudios universitarios, es preciso haber aprobado la selectividad, un Ciclo de FP de grado superior o el acceso por mayores de 25 años.*
- *Quienes retomen estudios o quieran cursar una carrera que no aparece en esta lista, nos lo indicáis; aunque no es seguro que lo acepten, intentaremos matricularles en esos estudios.*

*Los estudios marcados con \* se cursaban anteriormente, pero el decano ha dicho que en la facultad no hay condiciones para aceptar alumnado preso. Se han presentado reclamaciones, que aún no tienen una respuesta afirmativa.*

- *Antes de hacer la matrícula, para reservar la plaza, señalad **seis** carreras, por orden de preferencia; ya que en algunos estudios hay mucha demanda y entrarán en función de la nota que tengan.*

## Anexo 3

### Ciclos de Formación Profesional. Curso 2013-14

Ciclos de grado superior	
<b>Administración y Finanzas</b> <b>Mantenimiento de instalaciones térmicas y de fluidos</b>	<i>Integración social</i>
Transporte y logística	<b>Animación social y cultural y turística</b>
Prevención de riesgos laborales	Química y medio ambiente
<b>Asistencia a la dirección</b>	<b>Salud y medio ambiente</b>
Comercio internacional	Educación infantil
Eficiencia energética y energía solar térmica	<b>Diseño en fabricación mecánica</b>
Administración de sistemas informáticos en red ( <i>Necesario tener ordenador</i> )	Gestión de ventas y espacios comerciales
	Sistemas electrotécnicos y automatizados

Ciclos de grado medio	
<b>Gestión administrativa</b>	Atención a personas en situación de dependencia
Actividades comerciales	

#### **Para realizar la matrícula hace falta presentar esta documentación:**

- Título de ESO o similar para Ciclos de Grado Medio y Título de Bachiller o similar para Ciclos de Grado Superior

- Número y fotocopia de DNI. Dos fotos de carnet.

- Dirección y teléfono de la familia, para la hoja de matrícula.

- Indicar si quiere estudiar en euskara o español.

\* Aparte de la matrícula, pasadnos, por favor, el nombre, teléfono y email de la persona que coordinará con el grupo de estudios